

Ingenieritza Mekanikoko ikertzaile aditu bat Goi Eskola Politeknikoan hasi da (GEP), Mondragon Unibertsitateak eta Ikerbasquek izenpetutako hitzarmenaren bidez

2009/01/20

IKERBASQUE fundazioaren bitartez, **Abdelfattah Zebib** irakasleari Eusko Jauriaritzak goi mailako nazioarteko ikertzaileentzat urtero ematen duen beka mugagabe bat esleitu zaio. GEPEko Fluidoaren Mekanika arloan sartu da, bertako ikerketa jardueretan lan egiteko. Bereziki landuko dituen gaiak dira Soret efektuaren azterketa analitikoak, numerikoak eta esperimentalak, eta nahasketa likidoen, likidotuen eta ferrofluidoaren egonkortasuna mikroeskalari zein makroeskalari. Halaber, Termodinamikako gaiak ere landuko dira, esaterako, industri mekanismoen eraginkortasun energetikoa.



Abdelfattah Zebib irakaslea Egiptoko Kairoko Unibertsitatean graduatu zen, 1967an, Ingenieritza Mekanikoko MS eta PhD lortu zituen 1971n eta 1975ean, hurrenez hurren, Coloradoko Boulder Unibertsitatean, USA. Doktoretza ondoren bi urtez Coloradoko Boulder Unibertsitatean izan eta gero, Rutgers Universityko Ingenieritza Mekanikoko eta Aeroespazialeko Eskolan hasi zen lanean, 1977an, Irakasle Laguntzaile. 1981ean Irakasle Elkartu bihurtu zen, 1986an Irakasle egin zen, eta 1995ean II Irakasle Bereizi. 1986-87an doktoretza programaren arduradun izendatu zuten eta Departamentuko zuzendaria izan zen 1989-2000 bitartean. 2000tik 2008ra Rutgerseko Unibertsitateko Ingenieritzako Fakultateko dekanoa izan zen.

Ikertzaile ibilbidean zehar, **Abdelfattah Zebib** irakasleak hainbat arlotan egin du lan, batez ere Fluidoaren Mekanika Teorikoan eta Konputazionalan, eta baita ere landu ditu gainazal libreko fluxuen ezegonkortasuna eta flotagarritasuna, bibrazio ezegonkortasuna, ingurune porotsuetako konbekzioa, konbekzio planetario eta geotermikoa, kristal hazkundera, energia alternatiboa, etab., eta ikerketa horiek guztiek hainbat laguntza jaso dituzte, horien artean: The National Science Foundation (NSF) - the National Administration of Aeronautics and Astronautics (NASA) - the Federal Aviation Administration (FAA) - the Petroleum Research Fund (PRF) - American Telephone and Telegraph (ATT) - International Business Machines (IBM) - International Telephone and Telegraph (ITT)...

Horrez gain, **Abdelfattah Zebib** irakaslea Amerikako Fisikako Elkarteko kidea da 1994az geroztik, eta Physics of Fluids argitalpeneko editore elkartua ere bada.